

Euskal AEn 2.181 ezkontza egin ziren, aurreko urtean baino %10,2 gutxiago, 2013ko bigarren hiruhilekoan

Ezkontzen %75,5, zibilak, aurreko urtean (%69) baino ehuneko 6,5 puntu gehiago

Euskal AEko ezkontzak: 2013ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 2.181 ezkontza egin ziren, iazko aldi berean baino %10,2 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Bizkaian 1.093 (%-11,4) ezkontza; Gipuzkoan 741 (%-8,6); Araban 301 (%-8,5). 46 kasutan ezkontideak Euskal AEtik kanpo biziko dira.

2013ko udaberrian, ezkontzen %75,5 zibilak izan ziren, 2012ko aldi berean baino ehuneko 6,5 puntu gehiago. Era berean, proportzio hori 2013ko aurreneko hiruhilekokoan (%90,9) baino txikiagoa da. Ohi bezala, bigarren hiruhilekoan ezkontza-kopurua nabarmen gehitu zen, batez ere maiatz eta ekainean, neguko hiletan ez bezala.

2013ko bigarren hiruhileko horretako 2.281 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 2.123 gizonetako eta 2.129 emakumezko ezkondu ziren. 1.882 senarrentzat (%88,6), lehen ezkontza izan zen; 12 alargun eta 229 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Emakumeen lehenengo ezkontzen ehunekoa gizonenaren oso antzekoa izan zen: aurretik ezkondu gabeko emakumeak 1.910 (%89,7) izan ziren; alargunak, 11; eta dibortziatuak, 208.

Mantendu egin zen gero eta nagusiago ezkontzeko joera


Senarren %87,4k eta emazteen %76k 30 urte baino gehiago zituzten. Proportzio horiek 2012ko hiruhileko berean izandakoak (%84,7 eta %71,8) baino handiagoak dira eta beraz, hiruhileko horretan ere eutsi egin zaio gero eta nagusiago ezkontzeko joerari.

2013ko apiril, maiatz eta ekainean, emakume ezkonduen %8,5 eta gizonen %5,6 atzerritarrak ziren. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean ehuneko 1,1 puntu gutxiago gizonentzat eta puntu 1 gehiago emakumeentzat.

Sexu bereko pertsonen artean 27 ezkontza egin ziren, aurreko urteko hiruhileko berean 43 izan zirelarik.

	2013ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2013ko 1. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2012ko 2. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	2.181	100,0	845	100,0	2.428	100,0
Kanonikoak	534	24,5	77	9,1	752	31,0
Zibilak	1.647	75,5	768	90,9	1.676	69,0
SENARGAIK	2.123	100,0	817	100,0	2.342	100,0
Ezkongabeak	1.882	88,6	689	84,3	2.103	89,8
Alargunak	12	0,6	13	1,6	20	0,9
Dibortziatuak	229	10,8	115	14,1	219	9,4
EMAZTEGAIK	2.129	100,0	812	100,0	2.375	100,0
Ezkongabeak	1.910	89,7	681	83,9	2.151	90,6
Alargunak	11	0,5	4	0,5	13	0,5
Dibortziatuak	208	9,8	127	15,6	211	8,9

Iturria: Eustat. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKAri buruzko prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKAri buruzko datu-bankua